

# GRAL (Gradu-amaierako lanak) eta ADDI (Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitala)

**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean defendatutako GRALen euskarri digitaleko kopia bat ADIIIn gordailatu behar da, unibertsitateko kideek kontsultatu ahal izateko.**

**ADII:** UPV/EHUko Gordailu Instituzionala:

ADII, Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitala, dokumentu digitalen gordailua da. Haren helburua Euskal Herriko Unibertsitatean gauzatutako irakaskuntza eta ikerketa jardueraren ondoriozko ekoizpen intelektuala antolatu, artxibatu, zaindu eta sarbide irekian hedatzea da.

Gordailatzea eta argitaratzea ez dira berdinak. Gordailuetako gordailatzea ikertzaileen lanak jendaurrean jakinarazteko modu bat da, haien hedapena gehituta: egileek beren lanak erabilgarri jartzen dituzte sarbide irekian.

Lan bat sarbide irekikoa izateko, **egileak** horretarako baimena eman behar du alde zurretik.

## Sarbide irekia

Sarbide irekiak esan nahi du banakako edozein erabiltzailek artikuluko zientifikoaren testu osoak irakurri, behera kargatu, kopia, banatu, inprimatu, bilatu edo lotu, eta horiek legezko beste edozein erabileratarako erabil ditzakeela, inolako ekonomia, lege edo teknika oztoporik gabe. Hau da, literatura zientifikoa eskuratzeko modua da, doakoa eta irekia.

**Sarbide irekian (OA) egileak** beren obraren osotasunaren gaineko kontrola eta lanagatik behar bezala aipatu eta aintzatesteko eskubidea **hartzten dituzte beraietzat**.

Hona hemen joera horren onurak:

- eskuragarritasun handiagoa dokumentuetarako eta ikusgaitasun handiagoa egileentzat; modu askean eskuratu daitezkeen dokumentuek kontsulta gehiago jasotzen dituzte eta aipatzeko aukera gehiago dituzte.
- jakintza eta aurrerapen zientifiko-teknikoak ahalik eta modu zabalenean banatzen dira.
- Lanen egiletza egiaztatzea (Plagioaren aurkako sistemak)

## Gordailuak: Egile-eskubidea

Egileak gordailatutako lanei buruzko egile-eskubideen lagapen ez-esklusiboko lizentzia sinatzen du ADIIrekin, hau da, **egileak bere lana argitaratu ahaliko du argitaletxe, aldizkari edo antzeko baten bidez**.

**Egile-eskubideak arautzen dituen Espainiako legedia [Jabetza Intelektualeko Legea da](#) (1/1996 Errege Dekretua, apirilaren 12koa).**

Egile-eskubideak bi motatakoak dira: **moralak (garrantzitsuena esleipena edo egiletzaren aintzatespena da) eta ondarekoak edo ustiapenekoak (kopia, banaketa..)**

## Gordailuak: CREATIVE COMMONS lizentziak




**Ikasleek aurretik aipatutako eskubideak (moralak eta ondarekoak) dituzte, GALen egileak diren aldetik, eta gainerako erabiltzaileei beren lanen zein erabilera baimenduko dieten erabaki dezakete.**

**Horretarako, Creative Commons lizentziak daude.** Horiek obra baten ustiapen eskubideen (kopia, banaketa, komunikazio publiko eta transformazio eskubideak) erabileran oinarritzen dira nagusiki, eta modulu finko batek eta hiru modulu aldakorrek osatuta daude, balizko 6 konbinazio daudela.

Modulu finkoa:

-  **Esleipena (BY):** Egiletzaren aintzatespena egilearen eskubide moral lagaezina da, eta lizentzia guztiek hori errespetatu eta aplikatu behar dute beti.

Modulu aldakorrak:

-  **Berdina partekatu (SA):** Lizentzia beraren edo antzeko beste baten (CC lizentzia eguneratuagoa edo beste jurisdikzio batekoa) azpian dauden obrak onartzen ditu.
-  **Merkataritzakoa ez den erabilera (NC):** Obra bat zuzeneko edo zeharkako merkataritza erabileretarako (adib., negozio bateko hari musikala) erabiltzea debekatzen du.
-  **Ondorioztatu gabeko obrak (ND):** Obra inola aldatzea eragozten du. (adib., literatura obra baten itzulpena).

Hona hemen balizko 6 konbinazio:



**Aintzatespena (by):** Obraren edozein ustiapen onartzen da, merkataritza helburua barne, baita ondorioztatutako obrak sortzea ere; azken horiek ere inolako mugarik gabe bana daitezke.



**Aintzatespena – Merkataritzakoa ez dena (by-nc):** Ondorioztatutako obrak sortzea onartzen da, merkataritza erabilera egiten ez bada. Halaber, jatorrizko obra ezin da merkataritza helburuetarako erabili.



Aintzatespena – Merkataritzakoa ez dena – Berdina partekatu (by-nc-sa): Jatorrizko obra eta ondorioztatutako balizko obrak ezin dira merkataritza erabileretarako erabili; azken horiek banatzeko, jatorrizko obra arautzen duen lizentzia bezalakoa eskuratu behar da.



Aintzatespena – Merkataritzakoa ez dena – Ondorioztatutako obrarik gabe (by-nc-nd): Ez da onartzen jatorrizko obraren merkataritza erabilerarik, ezta ondorioztatutako obrak sortzea ere.



Aintzatespena – Berdina partekatu (by-sa): Obra eta ondorioztatutako balizko obrak merkataritza erabileretarako erabil daitezke; azken horiek banatzeko, jatorrizko obra arautzen duen lizentzia bezalakoa eskuratu behar da.



Aintzatespena – Ondorioztatutako obrarik gabe (by-nd): Obraren merkataritza erabilera onartzen da, baina ez ondorioztatutako obrak sortzea.

\*\*\*\*Unibertsitateko Liburutegiak ADIIrako lehenik eta behin gomendatzen duena honako hau da:



**Aintzatespena – Merkataritzakoa ez dena – Ondorioztatutako obrarik gabe**

eta 2. mailan honako hau:



**Aintzatespena – Merkataritzakoa ez dena – Berdina partekatu**